



# Hiroshimako Zuhaitza

Zori eta  
etsipenari  
buruzko  
amets-irudi  
komiko  
laburra

Yolanda Bustillo  
Iosu Florentino  
Joseba Uribarri  
Zuzendaritza: Borja Ruiz



**kabia**

Antzerki Ikerkuntza • Investigación Teatral



## Talde artistikoa



**SORKUNTZA ETA EKOIZPENA** KABIA TEATRO

**ZUZENDARIA** Borja Ruiz

**ANTZEZLEAK** Joseba Uribarri, Iosu Florentino eta Yolanda Bustillo

**HARREMANETARAKO** Yolanda Bustillo

+34 656 727 946

[www.kabiateatro.eus](http://www.kabiateatro.eus)

[kabia-teatro@kabia-teatro.com](mailto:kabia-teatro@kabia-teatro.com)

## SARIAK



**PUBLIKOAREN SARIA PABELLÓN 6KO  
ANTZERKI ARINAREN 4. EDIZIOAN**



**2. SARIA "BADARAN QUE HABLAR"  
ESTATUKO ANTZERKI LABURRAREN  
LEHIAKETAREN 2. EDIZIOAN**



## BIDEOA



<https://vimeo.com/207638049/cdf5ebec09>





## Sinopsia



Bizitzan gehiegi espero izateagatik desesperatutako gizon bat, soka eskutan, bere existentziaren azken unearen bila dabil.

Adardun gizona dirudien zuhaitz bat tente dago, bakardadeari omenaldia egin dion estatua baten gisara.

Haren helmugak, inolako irrikarik gabeak, lur gorrixka eta denbora mugagabea dituen leku batean korapilatu egiten dira. Gizon desesperatuak zuhaitz bakarti hartan aurkitzen du bere burua zintzilikatze leku aproposa; ez du ez arrosarik, ez hostorik ... ez da heriotzarik loratuko. Gizonak bere bizia emango du hiltzeko; eta zuhaitza bere gelditasunetik aterako da, gizonak bizitzen jarrai dezan.

Urruneko ekaitz baten soinuak sehaska-kanta japoniarrekin nahasten dira, eta tximista bat agertuko da, istorioaren bilakaera irauliko duena. Hiltzeko borrokatzen dena biziko da, eta bizitzeko borrokatzen dena hil. Zoriak pertsonaien kartak trukatu ditu bizitza jokoan dagoen norgehiagokan. Nork irabaziko ote du partida bitxi hori?

## Iraupena



15 minutu.

## Beharizan teknikoak



4x4 metro inguruko espazio laua (zabalagoa bada, hobeto).

4 metroko altuera

Argindar-hargunea foku pare bat ezartzeko (fokuak konpainiak berak ekarriko ditu).



## Eszena-gidoia



Ekintzen segida:

- 1) Urrunean ekaitza entzuten da, sehaska-kantu japoniar batekin nahasten dena (zuzenean kantatua, ekaitzaren soinua objektu batez sortua). Agertokiaren erdian Zuhaitz-gizona. Txori txiki batek kantua entzuten da (aktoreak berak egina, txistuka).
- 2) Soka-gizona sartu da, atzealdetik, azalpenik behar ez duen soka eskutan duela. Zuhaitza begiratu du. Adar ezberdinak egiaztatu ondoren, bere burua urkatzeko egokiena aukeratu du.
- 3) Soka-gizonak bere burua zintzilikatu du, baina, helburua lortuko duela dirudien unean bertan, zuhaitzak hankak flexionatu egin ditu eta Soka-gizona lurrera erori da.
- 4) Soka-gizona berriz saiatu da, baina zuhaitzaren flexioaren ondorioz erori egin da berriro. Txori txikiaren barre algarra. Soka-gizonak txoriari aurre egin dio: Zer arraiori egiten diozu barre?
- 5) Soka-gizona berriro saiatu da bere burua urkatzen: emaitza berbera. Ez daki zer gertatzen ari den, baina susmoren bat badu. Zenbaitetan errepikatu ondoren, azkenean konturatu da zuhaitza dela bere plana zapuzten ari dena. Soka-gizonak amarrua egin dio zuhaitzari: bere burua zintzilikatzean egiten zituen soinuak egin ditu ahotsaz, baina le kutik mugitu gabe. Zuhaitzak, gizonak bere burua urkatuko duela uste izanda, hankak flexionatu egin ditu Soka-gizonaren aurrean, aurretik egin duen bezalaxe. Zuzen zegoen: Zuhaitz-gizona da bere buruaz beste egitea eragotzi diona eta, gainera, lurraren kontra muturrekoa hartzea eragin dio behin eta berriro.
- 6) Gatazka. Soka-gizonak zartailua bailitzan erabili du korda, zuhaitza mendean hartzeko: aski da, nahikoa tontakeria dagoeneko, bere buruaz beste egitera etorri da eta kito. Baina Zuhaitz-gizona ez dago horretarako prest eta, gainera, Soka-gizonak atzea ematen dion bakoitzean, iseka egiten dio.
- 7) Irain eta menperatze-ekintzen maila igoz joan da eta, azkeneko, Soka-gizonak Zuhaitz-gizonari txiza egin dio. Honek, haserre, gizona lepotik hartu eta itotzen saiatu da. Egoera paradoxikoa sortu da orduan; Zuhaitz-gizona saihestu nahi zuen hura egiten saiatzen ari da, Soka-gizona itoarazten, alegia. Horretaz jabetuta, Zuhaitz-gizonak Soka-gizona lurrera bota du.
- 8) Pertsonaien artean isiltasuna eta distantzia areagotzen diren bitartean, urrunean zegoen ekaitza beren gainera heldu da. Trumoi eta tximistek Soka-gizona izutu egin dute eta, senak hala aginduta, Zuhaitz-gizonaren adaburupean babesten saiatu da tarte batean. Ekaitzaren erdian, tximista batek Zuhaitz-gizona jo eta bertan suntsitu du.
- 9) Ekaitza urruntzean, Soka-gizona Zuhaitz-gizonaren adaburupetik irten da. Une batez, amasa hartze hutsagatik poztu da, bizirik dagoelako. Handik gutxira, ordea, konturatu da Zuhaitz-gizona tximistak jo eta hil egin duela. Bat-batean tristurak hartu du, penak, bizia salbatu dion izaki hark berea galdu duelako; nahiz eta berak bizitza gutxiesten zuen.
- 10) Sehaska-kantu kanbodiak bat entzuten da (zuzenean abestua). Soka-gizonak Zuhaitz-gizona laztandu eta alde egin du.
- 11) Berriro ere, bakarrik dago zuhaitza, itxuraz hilda, sehaska-kantu kanbodiak baten soinuak bilduta. Adarretako batean, pixkanaka-pixkanaka, lore bat hazi da (kantatzen duen aktorearen eskutik) eta Zuhaitz-gizona berpiztu egin da. Hala ere, ez du lehengo itxura berdina; ekaitzaren ondorioak nabariak dira harengan, eta orbainak sumatzen zaizkio orain. Aktore-ablesariak espazio eszenikoa utzi du, Zuhaitz-gizona berriro ere bertan bakarrik utzita. Txistuka hasi da.

# Argazkiak





